

MOZIOA

PEDRO MUGURUZARI ADOPZIO-SEME ETA FRANCISCO SAGARZAZURI SEME KUTTUN IZENDAPENAK KENTZEKO PROPOSAMENA

2018ko ekaineko osoko bilkuran, Francisco Sagarzazu alkatearen aginduz Hondarribian hainbat lan egin zituen Pedro Muguruza arkitekto elgoibartar frankistari adopzio- seme izendapena kentzea eta Sabin Arana kalean eskaini zitzaion txokoan dagoen oroitarria kontestualizatzea erabaki zen. Laster hiru urte eta erdi beteko dira erabaki hartatik, baina ez da erabakitakoa bete.

Abotsanitzek uste du, gainera, harago joan behar dela, 2021eko uztailean Eusko Jaurlaritzak onartu zuen eta datozen hilabeteetan Eusko Legebiltzarrak berretsi beharko duen Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legearen zirriborroan jasotzen baita tokiko administrazioek “diktadura frankistaren babesleak goresteko moduak” baliogabetu behar dituztela. Hala dio Legearen 26. artikulua:

26. artikulua. Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak kentzea. Euskadiko tokiko Administrazioek sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta 1936ko altxamendu militarren, gerra zibilarren eta diktadura frankistaren babesleak goresteko bestelako moduak aztertu eta baliogabetuko dituzte, urtebeteko epean, eta egindakoa ziurtatuko dute. Administrazioek edonoren eskura jarriko dituzte ziurtapen horiek, eta behar bezala igorriko dizkiete Gogora institutuari, webgunean argitaratzeko.

Muguruzaren jaioterrian, Elgoibarren, dagoeneko egin dute hori. Elgoibarko Udalak Muguruzaren izena daraman etorbideari beste izen bat jartzea erabaki zuen aurtengo apirilean. Hain zuzen ere, Lege berrian oinarritu ziren Elgoibarko alderdiak (EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin/ Podemos) erabakia aho batez hartzeko: “Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak memoria demokratikoari buruzko lege bat idazten ari da, eta lege horrek babestuko du 1936ko altxamenduari edo erregimen frankistari lotutako edo haren aldeko pertsonen lotutako erreferentzia oro ezabatzea. Testuinguru horretan, Pedro Muguruzaren garaiko arkitektoa eta erregimenaren kongresuko legebiltzarkide izan zenari buruzko aipamena Elgoibarko kaleetatik kendu beharreko elementutzat hartuko litzateke. Une horren aurrean, Udalak prest egon nahi du eta aldaketa herritarrekin era partekatuan egin”. Joan den astean ezagutarazi zuen Elgoibarko Udalak prozesuan jasotako hamar proposamenen zerrenda eta aste honetako ostirala arte dute herritarren bozkatzeko aukera.

Bere herrian ausartu badira, nola ez gara gu ausartuko? Horregatik, 2018ko ekainean Muguruzaren adopzio-seme izendapena kentzea eta haren oroitarria kontestualizatzea erabaki bazen ere, oroitarri hori ezabatu ere beharko litzatekeela uste dugu, esan bezala, Memoriaren Lege berria aintzat hartuz.

Francisco Sagarzazuri dagokionez

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legearen 26. artikuluko horrek bete-betean eragiten dio Primo de Riveraren eta Francoren diktaduretan Hondarribiko alkate izandako Francisco Sagarzazuri ere. 1929ko abuztuan, bera alkate zela, seme-kuttun izendatu zuten, eta izendapen hori mantendu du gaurdaino, Pedro Muguruzak diseinatutako eta bere izena daraman parkean jarritako oroitarriak azaltzen duen bezala.

Bi diktaduretan alkate (eta zinegotzi) izan zen Sagarzazu, eta, militarra ez zen arren, militarrez jantzita eta soinean Falangeko ikurra duelarik agertzen da hainbat argazkietan, baita Francorekin batera diktadorea Hondarribira gonbidatu zuenetan.

Diktadura zalea, ustela eta lapurra izan zen Sagarzazu. Ustela, hainbat arrazoirengatik. Batetik, bere anaiak sorturiko Sociedad de Progreso de Fuenterrabia elkarteko akzioduna izanik, enpresa horri hainbat obra faraoniko esleitu zizkiolako. Bestetik, alkate-soldata handia kobratzen zuelako, legeak ahalbidetzen ez zuen arren Hondarribiaren tamainako herriei soldatapeko alkaterik izaten. Eta hirugarrenik, alkate zelarik propietate ugariaren jabe egin zelako, jatorri apalekoa izan arren oso aberats izatera iristeraino.

Eta lapurra, Hondarribiko Udalarri hainbat objektu eta agiri lapurtu zizkiolako: agiriak, planoak... eta Udalak seme-kuttun izendatzearekin batera Bienabe Artia artista irundarrari enkargatu eta ordaindu zion koadroa.

Beharbada, ez da Hondarribiko Udalbatzaren zeregina Francisco Sagarzazuren izen ona zalantzan jartzea, baina bai Memoria Historikoarekin duen harremana aztertzea. Eta horretan, zalantzarik ez da Sagarzazu Primo de Riveraren eta Francoren diktaduretan alkate izan zela, bi diktaduren aldarria egin zuela, eta garai hartan *Hiriko seme kuttun* izendapena jaso zuela.

Horregatik guztiagatik, Francisco Sagarzazu alkate izandakoari seme-kuttun izendapena ezabatzeko, bere izena daraman parkearen izena aldatu eta oroitarria kentzeko eta udaletxeko areto nagusi honetan hainbeste nabarmentzen den bustoa kentzeko proposamena ekarri dugu osoko bilkura honetara.

Orain arte adierazitakoa kontuan izanik, honako puntuak onartzeko proposatzen dugu:

1. Pedro Muguruza arkitektoari adopzio-seme izendapena kentzeko erabakia gauzatzea, besteak beste, udal webgunean ageri den adopzio-semeen zerrendatik kenduz.
2. Pedro Muguruzari Sabin Arana kalean eskainitako txokoan jarritako plaka erretiratzea.
3. Francisco Sagarzazuri seme kuttun izendapena kentzea.
4. Francisco Sagarzazuren bustoa udaletxeko areto nagusitik erretiratzea.
5. Francisco Sagarzazuren parkean kokatzen den oroitarrria erretiratzea.
6. Francisco Sagarzazuren parkearen izena aldatzeko parte hartze prozesua abian jartzea.

Hondarribia, 2021eko Abenduak 10

Abotsanitz Udal Taldea